

# Gizartearen miraila

Mattin Irigoienek idatzitako toberak emanen dituzte Aiherran gaur eta Donapaleun bihar

Idazle amikuztarraren tobekin aspaldiko ohitura horren berpiztea bizi da Iparraldean

**B**ost ekintzako antzerki-kantu-dantza bertsoaldi bat bezala aurkezten badu ere bere obra Mattin Irigoien idazleak, afixetan toberak bezala aurkeztua da *Zer nahi dute hemengo gazteek?* Lekuineko antzerki taldeak muntatu antzezlana. Eta hala da, dudarik gabe, euskal kulturaren zuhaitzean adar joria den adierazbide hori. Aiherrako Gau Beilaren kariaz emanen dituzte tobera horiek gaur arratsean, eta bihar arratsean Donapaleuko Airetik salan emanen dituzte.

Aurten Mattin Irigoienek bi toberaren ikusteko parada dugu Ipar Euskal Herrian, aipatu hori eta laborari gazte batzuek muntatu duten *Ahuntzek ere Euskal Herrian bizi nahi dute* izenburukoa. Beraz, Iparralde honetan garrantzi handia zuen ohitura baten berpizte eta jarraikitze baten menturan gara, eta agian eredu izanen dira bi tobera hauek.

Bigarren Mundu Gerla artio ardura egiten ziren herrietan toberak, eta herriarrek berek muntatuak eta emanak ziren. Herriko plazaren erdian, zinezko auziak ziren, herriak urtean zehar izan zituen ixorio-mixtorioen oihukatze, eskarniatzeko eta jendearen zirikatze xedea zutenak. Antzerkia, bertsolaritza, dantza eta kantua uztartzen ditu jendartearen miraila gisa ikus daitekeen entzunak izateko molde horrek. Eta *Zer nahi dute hemengo gazteek?* idazle arberaztarraren antzezlana halakoa da. Gogoeta bat baitakar Ipar Euskal Herriko egungo egoerari buruz, eta berezikiago gazteariari buruz. Gazte batek eguneroko bizian bizi dituen zailtasunen irudikatzaile izateaz gain, ironiaren bidez jendarteari bere buruaren kritika baten egiteko parada eskaintzen dio.

Hiru gazte bizileku baten



EGUNKARIA

Lekuineko antzerki taldeak muntatu du *Zer nahi dute hemengo gazteek?* izenburuko tobera.

bila ari dira Baionan «Ait'amen atzaparretik, eskolaren galkatzetik» atera nahian, antzezlaren lehen kantuak dioen bezala, eta beren baitarik bizitzeko asmoz. Agiri batean bat alokatzen dela ikusirik, jabeengana doaz hirurak, baina hauek gazteak direla ohartu eta ez diete apartamentua utzi nahi. Indar harreman bat sortuko da, baita kalapita ere. Gazteek, karrikan egon beharrekin batean,

poliziaren eta CRSen ferekak dituzte izanen saritzat. Ohizko toberetan bezala, bertsoek, kantuek eta dantzek osatzen dute lana. Alabaina, Lekuineko antzerki taldearekin batera, bertsolariak ere gonbit dira, eta ekintza guztien

artean ikus-entzunari ihardesteko bertsoak botatzen dituzte. Ekintzen arteko mozturatan, jokalariek guztiek agerraldian aipatu den gaia abestuz sakontzen dute kantu batekin. Dantzak ere egiten du bere agerraldia, eta toberek herriar guztien parte-hartzea bermatzen dutenez, Aiherrarat eta Donapaleurat hurbilduko diren jende guztiek ere dantzak gozatzen ahalgo dituzte, Irigoienek obra den arteko jauziekin eta larrain-dantzarekin bururatzeko baita.

## Jendarteaz gogoeta

Gogoeta bat dakarte, beraz, tobera hauek jendarteaz, eta, izenburuak dioen bezala, gazteek bizi dituzten zailtasunak dituzte gai nagusitzat. Etxebizitza baten aurkitzeko ezintasunaren inguruan, gazteen langabezia eta horren ondorio zuzenak ikus daitezke, baita ere Ipar Eus-

kal Herri honetan «sozial egoitzen» eskasa, «notableen» jokamoldea dela eta. Baina jabeekin hiru gazteek duten konfrontazio horrekin, belaualdien arteko ez-ulertzeak ere eskarniatuak dira, burasoekilako harremanak besteak beste. Askatasun gosearen eta aitamen behararen arteko auzian sartuak dira gazteak.

Bidenabar, euskarak Iparraldean bizi duen egoera ere egitasunez aipatua zaigu. Gazteak jabeen aitzinean euskaraz ari direlako, haiek gordetzen dute badakitela frantsesez ihardetsiz. Eta ez dira gutxi harritzen entzuten dutelarik hiru bisitariak eza-guzten dituen beren alaba euskaraz mintzo denean berek ez diotelarik nehoiz irakatsi. Horrek erakusten du gazte askok bizi dutena, hots euskararen transmisioaren galtzea eta AEK-ko Gau Eskoletan beren baitarik ibiliz ikasi beharra. Gazte aber-

tzale batek gehiegi harrotzeagatik jasaten duen errepre-sioa ere ikus daiteke, etxejabeek poliziari dei egin eta hiru lagunak biltzen duten zanpaldi antzeztuaren bidez.

Baina toberek beste funtzio bat ere betetzen dute, hau da, autokritika. Ironia eta trufaren bidez, gazte horien ezau-garri batzuk eta izate ezberdinak agerian emanak zaizkigu, hala nola horietarik bat agertzen zaigun gazte mugimenduaren eta egoeraren teorizatzaile gisa, diskurtso politiko estereotipatu batekin, edo beharbada ez hainbeste... Hain zuzen, bukaera osoa hiruren arteko elkarrizketa-gogoeta bat da. Beren inguruan dakusaten munduaren ohar ilun bat egin eta egoerari iharduki beharra dagoela azpimarratzen dute, etsipena bazterrean utziz. «Kostaldea frantximentua... Kostalde desitxuratua... Barnealdea leherregiten ari...», laster marrazten dute Ipar Euskal Herriak bizi duena. baina bukaeran, borondatez beterik, «elkartasunezko eta bizi aniztasunaren aldeko lanari lotzeko» nahikariarekin amaitzen dute solasa hiru gazteek, eta hastapeneko galderari dagokion erantzuna batean oihukatuko dute: «Gazteriak Euskal Herrian du bizi nahi!».

## Toberak orain eta beti

Bukaeran dei bat egiten dute ere gazte hauek, toberek badutela oraino bide, eta zer egin erakusteko. «Arraileria, trufa, zirika eta satira mar-txan ezarri behar ditugu bete-betean! Hori bai osagarri marka!».

Bai, dudarik gabe, jendarte batek bere buruari buruz gibelatzapenaren hartzeko gaitasuna eta zuzengabetasunen salatze ahala erakusten duelarik, bere osagarri ona du segurtatzen. Horrek dituen toberak euskal kulturaren garairik gabekoak eta betierekoak, adierazpide paregabeak eta jendartearen mirailak direlako. Bizi luzea izan bezate!

**Iñaki Etxeleku**

BAIONA